# Literatura




## NARRATIVA

# Novelas de un cazador de almas

**NOVELAS**
Stefan Zweig
Acantilado, 2012.
1.560 págs. / 45 euros.

Iñaki URDANIBIA

Más de una vez refiriéndome al gran escritor vienés Stefan Zweig (Viena 1881- Petrópolis, Brasil, 1942) he citado el modo en que le calificaba su amigo, el también escritor, Romain Rolland, que consta en el título de este comentario. Ciertamente Zweig era un consumado explorador de almas –no en vano leyó el discurso fúnebre ante la tumba de Sigmund Freud– y de vidas. Tal habilidad a la hora de penetrar en lo más recóndito de las psiques humanas puede verse en sus relatos, en sus numerosas biografías de algunas de las luminarias de la humanidad, y en sus logradas novelas.

Vaya por delante que estamos ante un acontecimiento editorial y ello por la entidad del autor y por la reunión de la totalidad de sus magníficas novelas. Hace ya unos años que la editorial barcelonesa había iniciado la publicación de las obras del autor de "Novela de ajedrez"; ahora se atreve a entregarnos en una entrega once novelas suyas, de entre las cuales tres no habían sido editadas previamente por la editorial. Podría decirse que tenemos once en uno.

Yo no tengo el propósito de irme a una isla desierta (¿hay de esto todavía?), pero desde luego no sería mala elección llevarse este grueso volumen, que recoge un verdadero tratado de pasiones que van desde los corazones tocados por las flechas de Cupido a las sombras que persiguen a algunos seres en fuga o que andan en busca de identidades que les suponen una carga al tiempo que un alivio. No está de más, si alguien no lo sabe, decir que Stefan Zweig era vienés de orígenes judíos, a quien la Segunda Guerra le pilló fuera del continente europeo, en una gira de conferencias por los países del sur americano. Viendo cómo se desarrollaban los acontecimientos decidió no volver, instalándose en Brasil, lugar en el que se suicidó junto a su mujer, hundido ante el avance que parecía imparable de la bestia parda. Unían sus nombres así a la plaga de «suicidados» que abundaron en aquellos oscuros tiempos Erwin Rieger, Ernst Toller, Walter Benjamín o Ernst Weiss.

En esta recopilación de novelas cortas y menos cortas asistimos a la puesta en escena de los celos, de los amores inciertos, de las pasiones frustradas, de nostalgias y melancolías varias , representados en almas tocadas en lo más íntimo por los afectos , por las carencias o por los deseos incumplidos y en fuga. No viene al caso ponerse a destacar alguna de las obras presentad,a ya que todas ellas son verdaderas joyas de auténtica sensibilidad humana y literaria, además de que quien se compre el tomo se lleva todo, mas no me resisto a destacar "Novela de ajedrez", " La impaciencia del corazón" o "La confusión de razones", sin obviar "Veinticuatro horas en la vida de una mujer"... Además de algunas de las sobresalientes características destacadas a través de las líneas anteriores, no parece justo olvidar la capacidad que nuestro hombre tenía para meterse dentro de la piel de las mujeres.

La habilidad narrativa y la delicadeza con la que nos son presentados los distintos personajes de sus historias hace que desde el principio de cualquiera de sus novelas nos sintamos atrapados a avanzar por los vericuetos de los más recónditos rincones del alma, allá donde anidan nuestros deseos, nuestras filias y fobias... a tal geografía seremos conducidos ineludiblemente por este guía sin par, que a lo largo de toda su existencia no dejó de recorrerla y de balizarla.

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

# Joandakoak gogoan

**ILARGIA ESNATU DA**
Joxantonio Ormazabal.
Iraia Okina.
Elkar, 2012.

Xabier ETXANIZ ERLE

«Bizitzaren eta heriotzaren misterioari poesiaz eta sentimenduz betetako erantzuna eman diote Joxanek eta Iraiak ipuin honetan», dio argitaldariak liburu honen kontrazalean, eta hain zuzen bizitzaz eta heriotzaz ari den ipuin hunkigarri bezain poetikoa dugu Joxanek utzi zigun hau, Iraia Okinak irudi sentimental, apal, iradokitzaileen bidez ederki ilustratu duena.

Haur txikientzako liburua dirudi, hasiera batean bederen, azal gogorra, irudi asko eta testu gutxi, irudiak koloretan... paratestuek hala iradoki dezakete, baina irakurtzen hasi ahala konturatuko gara sinpletasun horrek gaiaren eta narrazioaren gaitasun bat eskatzen dituela. Narratzailea ama bat dugu, eta dauden galderen artean hunkigarriak ere badirela diosku. «Galdera horiek bihotzeraino iristen dira, eta begiak bustitzen dituzte batzuetan». Unaik, 6 urteko semeak, gau batean, «Ama, nolakoa zen nire amona? Zure ama» galdera egin zion amari, eta honen begiak busti egin ziren.

Galdera horri erantzun eman nahian narratzaileak, amak, bere amari buruz gogoratzen duena kontatuko digu. Joxepik nola eramaten zuen eskolara, nola azaltzen zion joandakoak ez direla itzultzen, baita maitasuna elur bola bat bezalakoa dela ere: «Begira, pertsonen arteko maitasuna elur bola bat bezala da. Hasieran txiki-txikia izaten da, pilota baten tamainakoa. Mendian behera doan eran, handitzen eta handitzen joaten da».

Joxepi, baina, hainbeste maite zuen mendian geratu zen egun batean betiko. «Aita konturatzerako han joan zen amildegian behera», eta amaren galeraren min horren parean amarekiko maitasun bola gero eta handiagoa bilakatu zen.

Gaia, ikusi ahal izan den bezala, hunkigarria da; idazkera, poetikoa, irudiak ere leunak, Ormazabalen tonuarekin bat eginda; «Ilargia esnatu da eta zuk lo egin behar duzu», esaten dio amak Unairi; baina "Ilargia esnatu da" honek ez gaitu ohera joaten gonbidatzen, sentimenduen eta oroitzapenen mundura baizik; joandakoengandik hurbil sentitzeraino.




Haurrei heriotza zelan azaldu dauka hizpide lan honek. GARA

## Heriotzaren irudi poetikoak, liburuetatik hormetara

Joxantonio Ormazabalekin batera hasi zen Iraia Okina "Ilargia esnatu da" liburua lantzen, haurrei heriotzaren ideia nola azaldu. Bizitzak ustekabeko bidea hartu zuen, ordea, eta Okinak bakarrik bukatu du liburua, interpretazio pertsonalagoa eginez. Irudi horiek Tolosako Aranburu jauregian daude ikusgai urtarrilaren 26ra bitartean.

Idazlea eta irudigilea orain hiruzpalau urte hasi ziren "Ilargia esnatu da" liburua izango zenari bueltak ematen. Heriotza landu nahi zuten, haurrei zuzenduta. «Ideia hain zaila izanik, zerbait egin nahi genuen, behintzat alaia irudi aldetik», azaldu zuen margolari durangarrak. Baina Ormazabalen heriotza etorri zen orduan, «eta gogoratzen hasi nintzen berak zeri ematen zion garrantzia; adibidez, naturari. Arbola erabiltzen zuen bizitzaren bilakaeraren ideia bezala eta horregatik azaltzen da hainbeste ipuinean... eta ideia horiek sakonduz egin dut nik nire interpretazioa. Irudiak asko aldatu dira hasieran berarekin hasi nintzenetik hona. Nahi nuen zerbait sakonagoa, poetikoagoa, pertsonalagoa», esan zuen.

Irudi horiek, orain, Tolosako erakusketan bildu dituzte, bai originalak, bai liburukoak, azken horiek testu eta guzti. «Jendeak ikus dezan zenbat aldatzen den. Zaila izaten da koloreak berdinak ateratzea, gehienbat inprentan lau kolore direlako. Horiek nahastuz lortzen dituzte koloreak eta horixe izaten da askotan gure beldurra, nola irtengo ote diren hainbeste lan egin ondoren». Ane ARRUTI.